

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

5566

EBAZPENA, 2020ko abenduaren 9koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburordearena, zeinaren bidez iragartzzen baita, 2021eko ekitaldirako, enpresa I+G bultzatzeko Hazitek programaren I. fasearen deialdia.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urtarrilaren 31ko Agindua-
ren bidez (2017ko martxoaren 2ko EHAA, 43. zk.), enpresa I+G bultzatzeko Hazitek programa
arautzen da. Agindu hori Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2018ko
abenduaren 17ko Aginduak aldatu du.

Aipatutako agindu arautzailearen 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2021eko ekitaldirako,
I. fasearen –proiektuak hautatu eta onartzea– deialdia egin beharra dago, eta, horretarako, behar
diren arauak eman.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 12. artikuluan ezarritako ahalmena dela bide, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen helburua hau da: Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren
2017ko urtarrilaren 31ko Aginduan aurreikusita dagoen I. fasearen deialdia egitea –proiektuak
hautatu eta onartzea–; agindu horren bidez, enpresa I+G bultzatzeko Hazitek programa arautzen
da. Agindu hori Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2018ko abenduaren
17ko Aginduak aldatu du.

2. artikulua.– Eskabideak: aurkeztea eta epea.

1.– Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2017ko urtarrilaren 31ko Agin-
duaren 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu
beharko dira; agindu horren bidez, enpresa I+G bultzatzeko Hazitek programa arautzen da.

2.– Eskabidea eskuratzeko eta betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren
egoitza elektronikoa erabili behar da:

<https://www.euskadi.eus/servicios/1030805/> (gaztelania)

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1030805/> (euskara)

Eskabidearen ondorengo izapideak, bide elektronikoz, jakinarazpenak eta espedientearen
kontsulta barnean direla, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elek-
tronikoko «Nire karpeta»ren bidez egingo dira:

– <https://www.euskadi.eus/micarpeta>

– <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argi-
taratu eta hurrengo egunean hasiko da; amaitu, berriz, 2021eko martxoaren 12ko 12:00etan
amaituko da.

4.– Deialdi honetara aurkeztu ahal izango dira 2021ean garatutako proiektuak –izaera lehia-korreko proiektuen kasuan– eta 2021-2023 aldian garatutakoak –izaera estrategikoko proiektuen kasuan–.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Eskabideak aztertu eta ebaluatuko dituen ebaluazio-organo bat eratzen da, zeinaren osaera hauxe izango baita:

Lehendakaria: Teknologiaren arloan eskuduna den Zuzendaritzako titularra, Alberto Fernández González, eta ordezkoa: Ekintzaitzaren, Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zuzendaritzako titularra, Leyre Madariaga Gangoiti.

Honako kide hauek bokalak izango dira:

– Industriaren Garapenaren arloan eskuduna den Zuzendaritzako titularra, Mikel Amundarain Leibar; eta ordezkoa: Industriaren Garapenaren arloan eskuduna den Zuzendaritzako teknikari bat, Rosa M.^a Murillas Maza.

– SPRIren ordezkari bat, Miguel García Altuna eta ordezkoa: Maite Hernández Hernández.

– Teknologiaren arloan eskuduna den Zuzendaritzako teknikari bat, Larraitz Segurola Bereciartua; eta ordezkoa: Natividad Niño Bartolomé, zeinak idazkari-lanak egingo baititu.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 9a.

Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea,
ESTÍBALIZ HERNÁEZ LAVIÑA.